Sagarrondoak landatzeko artea

Sagardo Egunaren lagunek badute sagasti txiki bat. Sagarrondo txiki-txikiak dituzte, baina lasai, egunen batean emango dute beren fruitua: sagarra. Eta sagarrarekin, mordoxka bat biltzean noski, sagardoa egin ahal izango dute. Baina, tira, azken egitasmo hau beren ametsa besterik ez da.

Hilerri ondoan dago Sagardo Egunaren Lagunen sagastia. Duela urte batzuk herriko baserrietan zeuden sagar mota desberdinak aztertzean, baserritarrek esanda sagar mota batzuk desagertuak zeudela jakin zuten, eta udalari sagarrondoak landatzeko lurzati bat eskatu zioten lehen izaten ziren sagar motak mantendu ahal izateko.

Iazko neguan mota desberdineko 17-18 sagarrondo koxkor landatu zituzten. Horrez gain, sagar makatzaren haziak lortu, erein, eta aurten landatzeko landareak atera zituzten. Horrela ba, 2000. urteko neguan beste 25 bat landare makatz landatu zituzten.

Generoa badute, baina aurrerantzean sagasti horrekin lanean jarraitzea da beraien asmoa. Udaran zenbait landare beste sagar mota batzuez txertatuko dituzte, baina txertatu gabeko makatzak (basoan sortzen de sagarrondoa) edukitzen jarraituko dute aldi berean. Aurten landatutako landareak baratza antzeko batean dituzte, txertatu ondoren, aurrerantzean hartuko duten lekuan jartzeko.

Buruan dituzten ideiak behintzat, ugari dira. Sagasti honekin, jendeari sagarrondoak nola txertatzen eta kimatzen diren ikasteko aukera eman nahi diote. Hemendik urte batzuetara sagarra ematen hasiko dira sagarrondo hauek, eta sagardoa egitea ere ez dute baztertzen

Aurtengo honetan bisitari berezi batzuk izango ditugu Sagardo Egunean. *"Asociación Cántabra de amigos de la sidra"* elkarteko kide batzuk gure artean ibiliko dira maiatzaren 21ean. Duela gutxi herriko "Sagardoa Egunaren Lagunak" taldearekin harremanetan jarri ziren udaran hona etortzeko asmoa zutela azalduz, baina Sagardo Eguna gertu zegoela ikusita, hemengo giroa nolakoa den ikusteko hona etortzea erabaki dute.

Sagardoa eta honen inguruan sortzen den kultura guztia Kantabrian berreskuratzea da talde honen helburu nagusia. Garai batean Kantabrian sagardoa egiten zen, baina azken mende honetan gainbehera joan da edari honen produkzioa. Hala ere, zenbait baserrietan sagardoa egiten dela konturatu eta sagardoa eta honen inguruan sortzen den guztia berpiztu nahi dute. Oraingoz, sagardoari buruzko informazioa eman besterik ez dute egiten sagardoa maite duten Kantabriako jendeak osatutako talde honek. Etorkizunean, berriz, Sagardo Eguna antolatzeko asmoa badute, eta bertako sagardoarekin bada hobe.

Sagardo egunean Mahaspildegira egiten diren joan etorriak famatuak izaten dira. Botatzaileek behintzat ondo dakite hori. Tripak danbor hotsez egon ohi dira eta hauek asetzeko zer hobeto bazkari on bat baino. Aurten ere ez da buila eta zalapartarik faltako Mahaspildegira joateko bidean. Hasiera batean bazkaria hemen egitekoa ez bazen ere, azkenean, aspaldiko ohiturari jarraituz, Mahaspildegi elkartean izango da bazkaria. Aurten ere lasai bazkaldu ahal izango dute botatzaileek, arratsaldean ez baita sagardo botaketarik izango. Beraz, badakizue, eguerdiko 14.30etatik 15.00etara trasteak jaso eta Mahaspildegira bazkaltzera.